

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

3085

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 10ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, Euskara eta Euskal Kulturako irakurlea hautatzeko balorazio-batzordearen osaera xedatu eta argitaratzen duena.

2025eko maiatzaren 30ean argitaratu zen EHAA 2025eko maiatzaren 13ko Ebazpena, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, ondorengo unibertsitateetan euskara eta euskal kulturako irakurlea hautatzeko deialdia irekitzen duena: Parisko Sorbonne Nouvelle Université eta Parisko Sorbonne Université.

Ebazpen horren 9. artikuluan xedatzen da deialdira aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko hautaketa-batzordea eratuko dela.

Hori dela eta,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Aipatutako hautaketa-batzordea osatuko duten kideak izendatu eta ezagutzera ematea. Honako hauek izango dira batzordekideak:

Lehendakaria: Monika Madinabeitia Medrano andrea, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria edo ordezkoa.

Kideak:

– Beñat Muguruza Aseginolaza, edo ordezkoa.

Idazkaria: Eneko Agirre Maiora, Etxepare Euskal Institutuko euskara eta kultura sustatzeko teknikaria, edo ordezkoa.

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Donostia, 2025eko ekainaren 10a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.